



## AHOLKULARITZA ZERBITZUAK – Maila aurreratua

### Prozedura irekiaren bidez kontratatzeko eta lehiaketaren bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

## 1. Kontratuaren xedea eta zehaztapenak

### 1.1. Kontratuaren xedea

#### 1. Koadroa

Lehiaketa honen xedea aholkularitza-zerbitzua kontratatzea da, [txertatu zerbitzuaren xedea] egiteko eta ingurumena errespetatuz exekutatzeko.

### 1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

#### 1.2.1. Eskaintzak aurkezteko irizpideak

#### 2. Koadroa

- Eskaintza teknikoak (ez ekonomikoak) ez ditu izan behar [txertatu gehieneko orrialde kopurua, proiektu-mota zein den] orrialde baino gehiago.
- Hau aurkeztu behar da<sup>1</sup>:
  - [eskaintza ez bada handia] %100 paper birziklatuan (% 65, gutxienez, kontsumitu ondokoa), alde bietan eta zuribeltzean inprimatua (zuri-beltzean interpretatu ezin bada soilik erabili behar da kolorea), ahalik eta gutxien koadernatua eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko); edo

<sup>1</sup> Bizi-zikloen berariazko azterketarik ez dagoen arren, eskaintzen tamaina aintzat hartuta, papera erabiltzea CD batean grabatzea baino hobea izan daiteke; izan ere, paperaren birziklapen-tasa CD, DVD eta USB memoriara baino handiagoa da, eta paperezko gutunetan bidaltzen direnez, gaikako bilketa erraztu egiten da. CDen jasotze- eta birziklapen-tasa txikiagoa da, eta hain birziklagarriak ez diren gutun barrubigunetan bidaltzen dira. Dena den, papera ekoiztearen eraginak kontuan hartzeko modukoak dira, eta, hori dela eta, eskaintzak handiak badira, CD birgrabagarriaren aukera hobea izan daiteke, ingurumenari dagokionez, mezularitza bidez bidalita eragina murriztu egiten delako eta berrerabil daitezkeelako. Horregatik, bi aukera eskaintzen dira, kontuan hartuta zer-nolako lana kontratatu nahi den, memoriaren tamaina eta pantailaren irakurketa-maila; izan ere, proposamena berrikusten duen teknikari bakoitzak proposamena inprimatzen badu, komeni da paperezko kopia eskura izatea.

- [eskaintza handia bada] CD birgrabagarri batean, itxi gabe, edo antzeko euskarri batean (gero berrerabili ahal izateko)

### 1.2.2. Zerbitzu-irizpideak

### 3. Koadroa

- Zerbitzuak ingurumena errespetatzen duela bermatzeko, Eranskinean ageri diren esparruetan ingurumen-eraginak %50 murrizteko prozedurak eta ekintzak ezarrita egon behar dute lizitatuzaileen enpresetan.
- Bestalde, zerbitzua/proiektua gauzatzen den bitartean ingurumen-eraginak murrizteko enpresa eskaintzaileek eskura dituzten beste neurri batzuk ere aztertu behar dira.
- Eranskinean ageri den ingurumenari buruzko jardunbide egokien dekalogoan jaso behar dira horiek guztiak, eta, horrez gain, enpresaren adierazpenak bermatzeko behar diren egiaztagiri guztiak eman behar dira.

## 2. Kontratuaren gauzatzea

### 4. Koadroa

#### Joan-etorrien eraginak murriztea

- Zerbitzuan/proiektuan sortzen diren joan-etorrien eraginak murrizteko plan bat aurkeztu behar du esleipendunak kontratuaren hasieran, eta kontratugileak onartu egin behar du.
- Planak, ezagutzen diren alderdiei dagokienez, garraio-beharren zerrenda bat (koordinazio bileretarako, prestakuntzarako, bisitetarako, etab.) izan behar du, baita horien helburuak eta joan-etorrien eraginak murrizteko neurriak ere — esate baterako, teknologia berriak (telekonferentzia, bideokonferentzia...) erabiltzea, garraio publikoa erabiltzea, CO<sub>2</sub> gutxi isurtzen duten ibilgailuak erabiltzea, etab.—, eta joan-etorrien beharrik ez dutenak hobetsi behar dira (hots, bideokonferentzia edo telekonferentzia...).
- Zehaztu gabeko elementurik baldin badago, joan-etorrien eraginak murrizteko zer neurri hartuko diren adierazi behar du esleipendunak planean, eta, zehaztu ahala, kontratugileari aurkeztu behar zaizkio, onar ditzan.
- Kontratua amaitzean [edo beste maiztasun baten arabera, kontratuak zer dioen], neurriak kontuan hartuta eta joan etorriak amaitu direla, zerbitzuan/proiektuan esleipendunak nahiz beste agente batzuek sortutako CO<sub>2</sub> isuriei buruzko txosten bat aurkeztu behar du esleipendunak.

- Zerbitzuan/proiektuan esleipendunak sortutako CO<sub>2</sub> isuriak konpentsatu behar ditu esleipendunak berak (bere kontura).
- [Hautazkoa, kontratugileak eta onuradunek beren gain hartzen badute gainkostua] Zerbitzuan/proiektuan gainerako eragileek sortutako isurien konpentsazioaren izapideak ere esleipendunak egin behar ditu, hala eskatzen bada, betiere ([txertatu kontratugilea edo onuraduna](r)en kontura).
- Konpentsazioa egin ondoren, konpentsazioaren ziurtagiriak eman behar dizkio esleipendunak kontratugileari [zerbitzuarengatiko azken ordainketarekin lot daitezke].

## 5. Koadroa

### Txostenen eta dokumentuen aurkezpena zerbitzuaren iraunaldian

#### Laneko dokumentuak

- Paper-kontsumoa murrizteko, zerbitzuaren/proiektuaren iraunaldian sortutako laneko dokumentuak formatu elektronikoa entregatu behar dira posta elektronikoaren edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko estekak dituztela, edo ftp bidez), edo, bestela, CD, DVD edo antzeko euskarriren bidez, betiere birragabariak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko.

#### Azken dokumentuak

- Ahal bada, azken dokumentuak formatu elektronikoa entregatu behar dira, posta elektroniko edo zerbitzari bidez, edo, bestela, CD, DVD edo antzeko euskarriren bidez, betiere birragabariak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko.

#### Kasu guztietan

- Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada edo kontratugileak hala eskatzen badu (laneko txostenak, bileretako dokumentuak, etab.), esleipendunak hau egin behar du:
  - Kontratugilearekin adostu dokumentuak inprimatu behar diren ala ez, ez badu kontratugileak zuzenean eskatu [kontratua gauzatu ahala egin daiteke, edo egoera gehienetarako irizpideak finkatuz kontratuaren hasieran]
  - Ahalik eta ale gutxiena inprimatu, beharrei egokitzuz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin sobera geratu.
  - % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienik % 20koa duen paper birziklatu gabea.

- Agiri inprimatuak eskatzen badira, erabili behar diren paper birziklatuen eta/edo ez birziklatuen dokumentazioa aurkeztu (izena, marka, ezaugarri teknikoak eta ingurumen-ezaugarriak) kontratuaren hasieran, kontratugileak onar dezan. Kontratuaren iraunaldiak aldaketarik izanez gero, horien berri eman egin behar da, eta kontratugileak, onartu.
- Dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu (zuri-beltzean interpretatu ezin bada erabili behar da kolorea; bestela, ez), alde bakoitzean bi orrialde edo gehiago daudela (hala komeni bada eta ulertzeko moduan dagoela bermatzen bada), ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).

## 6. Koadroa

### Zerbitzuak beste enpresa batzuei azpikontratatzea

- Kontratuan adierazi bada esleipendunak zerbitzuak beste enpresa batzuei azpikontratatu behar dizkiela edo ltoberen Erosketa eta kontrataziorako eskuliburu publiko berdean jasotako produktuen eta/edo zerbitzuen beharra duten lanak egin behar direla, esleipendunak lan horiek egin edo enpresei kontratatu behar dizkie, eskuliburu horretan ageri diren irizpideei jarraituz.
- Zerbitzua ez badago jasota erosketa eta kontrataziorako eskuliburu publiko berdean, esleipendunak ingurumen irizpideak kontuan har daitezen ahalegindu behar du kontratatzea egitean.
- Kontratuaren amaieran, eskakizun horiek bete izanaren ebidentziak eman behar zaizkio kontratugileari.

## 7. Koadroa

### Ingurumen-kudeaketa kontratua gauzatzen den artean

- Entitate kontratugileak bermatu behar du eskakizun hauek betetzen direla:
  - Hondakinen berrerabilpena eta/edo gaikako bilketa, zatiak bereiziz, behar bezala kudeatzeko.
  - Ingurumen-gaiei buruzko prestakuntza, kontratuaren hasieran, kontratua gauzatu behar dutenentzat (hondakinen kudeaketa, produktuena, energia- eta ur kontsumoaren murrizketa, eta kontratuan jasotako ingurumen-baldintzetatik eratorritako gainerako alderdiak).
  - Batik bat ingurumen-informazioa duten lan-aginduak prestatzea, eta langunean eskuragarri egotea.

### 3. Esleipen-irizpideak

Esleipen-irizpideetan zehatz-mehatz adierazi behar da kontuan hartzeko elementu bakoitzari zer arreta egin behar zaion eta zer formula aplikatuko den; esate baterako:

#### 8. Koadroa

- Zerbitzuaren/proiektuaren gauzatzean ingurumen-hobekuntzak, Eranskinean jasotakoaren arabera, % 20raino.

Irizpideak puntuazio objektiboa izan dezan, kasu honetan, eranskineko irizpide bakoitza betetzeagatik bi puntu ematea erabaki daiteke. Zenbait elementu baloragarri ere zehaztu daitezke irizpide bakoitzerako eta puntuak proportzionalki eman, oro har edo atalase jakin bat kontuan hartuta betetzen dituzten azpi-irizpideen kopuruaren arabera. Eranskineko 3. puntua (uraren kudeaketa iraunkorra) aintzat hartzen badugu, horrekin lotuta gauzatutako eta justifikatutako jarduera bakoitzeko bi puntu eman daitezke. Iturrietan eta tangetan aurrezte-sistemak izatea, eta sentsibilizazio-jarduerak egitea azpi-irizpide puntuagarriak izan daitezke, baita azpi-irizpide bakoitzari puntuak ematea ere, instalazioen eta pertsonalaren % 50ean aplikatu badira.

Nolanahi ere, informazio hori guztia kontratazio-agiriaren atal honetan sartu behar da.

### 4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Aurkeztutako eskaintzen eta dokumentazioaren ebaluazioa errazteko, dokumentazioa aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da kontratazio-agirian. Informazioa lehiaketaren iragarkian zehaztu behar da, lizitatzailleek garaiz izan dezaten horren berri.

#### 9. Koadroa

- Proposamenean dokumentazio hau aurkeztu behar da, honela:
  - Zerbitzuaren/proiektuaren memoria**, gehienez [txertatu gehieneko orrialde kopurua] orrialdekoa eta [txertatu formatua, papera edo elektronikoa] formatuan.
  - Eranskina**, behar bezala beteta, sinatuta eta zigilua jarrita, baloraziorako behar dituen **egiaztagiri** guztiekin batera.

## 10. Koadroa

**Eranskina**

- Lizatzaileak adierazten du zerbitzua/proiektua gauzaten ari den bitartean ingurumen eraginak murrizteko behar diren neurri guztiak eskura dituela esparru hauetan:

BAI/EZ	ENPRESAN BETETZEN DUGUN JARRAIBIDEA
	1. Energiaren aldetik eraginkorrak diren ekipoak ditugu, energia-kontsumoa ahalik eta txikiena izateko moduan daude programatuta eta jardunbide jakin batzuk aplikatzen ditugu.
	2. Energiaren aldetik eraginkorrak diren argiztapen- eta girotze-sistemak ditugu, baita energia aurrezteko sistemak ere, eta ingurumen jarraibideak aplikatzen ditugu esparru horretan.
	3. Gure jarduerarekin lotutako mugikortasunak sortutako eraginak ahalik eta txikiak izateko neurriak aplikatzen ditugu.
	4. Ingurumenari kalterik egiten ez dion bulego-materiala erabiltzen dugu, eta gure jardueran ez dugu produktu arriskutsu edo toxikorik erabiltzen, edo haien erabilera mugatua da.
	5. Ura aurrezteko ekipoak eta sistemak ditugu, eta jardunbide jakin batzuk aplikatzen ditugu.
	6. Hondakin arriskutsuak indarrean dagoen araudia betez kudeatzen ditugu, garbiguneetan tratamendu egokia izan dezaten edo hondakinak kudeatzeko baimena dutenek tratamendu egokia eman diezaieten.
	7. Arriskutsuak ez diren hondakinak bereizi egiten ditugu, udaledukiontzietan uzteko, garbiguneetara eramateko edo birziklatzen dutenei entregatzeko.
	8. Ingurumen-prestakuntza ematen diegu langileei, jardueraren ingurumen-eraginaren berri izan dezaten eta eragin horiek ahalik eta txikiak izateko zer egin jakin dezaten.
	9. EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo ziurtatu gabeko (baina kredita dezakeguna) bestelako ingurumen-kudeaketako sistema bat dugu.
	10. Beste ingurumen-ohitura batzuk abian jarri ditugu edo aurreko puntuetan adierazi gabeko ingurumen-ekimenetan lankidetzan dihardugu.

- Eta, adierazpen honekin batera, hauek ematen ditu: prozeduren, lan-aginduen, neurrien, baliabideen eta adierazleen deskribapen bat eta kopia bat, justifikaziorako eta bermerako (balorazioa enpresa osoarekiko neurriaren araberakoa izango da).

Izpta.: Jn./And.

N.A.N.:

Honen ordezkari gisa